

## SECCION AMENA

## ¡ZENBAT JOSTAKALLU 1

## MUNDUAK BADITU!

(ON MARZELINO SOROA NERE ADISKIDE TA BERSO EGINTZALLE BIKAÑARI.)

Dama batzuek euren aurchoakin zuten  
 Neguko arratsetan billera egiten.  
 Sinistu etzezaten ortzak eta egiñak  
 Zizkiola paratu Balderrama jaunak,  
 Gau batean aurkeztu zan andre Katalin,  
 Aurpegia loturik pañueloarekin.  
 Bere lagun artean, zorrozten mistoak,  
 Laster asi ziraden, listor gisakoak.  
 ¡Nere andre Katalin, oriše da planta  
 Guziak asi ziran esaten kañuka.  
 Batek galdetu zion: bart ezkerotikan,  
 ¿Zér zaio pasatutzen ortz eta agiñetan?  
 —Ez det arrats osoan begirikan ichi,  
 Eta, egun guzian jan ere aiñ guchi.—  
 Baña, emakumea, zan beste bat mintza,  
 (Zergatik ez atera kendutzeko oñaza?  
 —¡Ikara erazten dit oroitz utsak ere!  
 Milla duro gantikan kenduko ez nuke.—

(1) Farsa.

Baña ¡choroa! ori gauza erraza da,  
 Bjoa len baña len Balderramagana;  
 Somatu ezkeroztik miña, nik beñepeñ  
 Begiari agudo diot erakusten.  
 —Beraz, berorrek baldin miñ balu buruan,  
 Lepoa pikatuko luke abiuan?—  
 Arrazoi orrek ez du ichurarik, eta,  
 Or konpon, neri ez dit ardit bat inporta.  
 Orduan asi ziran alkarri kontari,  
 Neri Arriet jaunak ziran atera bi;  
 Neri berriz iru ta, orreri noski lau:  
 Katalinen aurchoak aditutzean au,  
 Ojuka esan zuan,—¿lau agiñ bakarrak?  
 Askoz geiago ditu kentzen gure amak:  
*Begira, sartzen ditu onela beatzak,*  
*Eta ateratzen denak, AGIÑ ETA ORTZAK.—*

OTAEGI-KO KLAUDIO.

